ANGELUKO IKASLEAK
OSOGUNEKO ERAKASKERA
1993 - 94

SEIGARREN ERAKASPENA

11

(I) ELHEKETA : ASTE HUNTAKO SOLAS BIDEA

1- Nor zen Bernat Detxepare?
2- Zer egin zuen?
3- Nungoa zen eta noz lagundu zituen?

GURE GIZONAK

BERNAT DETXEPARE *

(II)

Arras gogotik mintzatzen niz gizon huntaz zeren eta ahantxu ene herritarra delakotz.

Ehiaralarren sortua zen. Luzaidetik hurbil, eskuaraz lehenbiziko liburua idatzi zuenak, *Linguae Vasconum primitiae* deithua.

Ehiaralarre (frantsesez Saint Michel), Doniane Garazitik hiru kilometra urrundua da, hego alderat, ditakeneko toki pollitenian yarria, xoko liluragarri batian, oihan eta phentze ederren artian. Eskualherriko aurkhintza[1] miresgarrienian.

Holako lekhu goxoan sorthu beharra zen gure gizona! Handik athera beharra zen bihotz eskualdun suhar bat, oki gure elhea maite zuena, eta liburuaren egiteko xedea aitzina eremaiteko bere helbururaino ezindua izanikan, etsitu gabe, azkenian hatzemaiten du gizon dirudun bat bere laguntza emaiten dakona, moltsa idekirik!

Detxeparek, bihotza arras hunkitua holako dohain yoriaz, goresmen haundiak egiten ditu bere phertsuetan gizon hortaz, esker amultsuenak emainik, *Bernat Lehet* laguntzaile Garaztarrari.

Eta 1545-an Bordeleko hitz moldetegi[2] batian agerrarazi zuen.

Nafartar bat beraz izan da idazle lehena gure mintzaira ederrean eta handizki ohoratzen gitu gure arthean sorthu zen gizonak.

Zonbat eta zonbat ez da idatzi eta mintzatu liburu hortaz, mintzaira zaharren argitzen eta ikhertzen ari diren yakintsuenez Europan!

Hor ditugu Vinson, Ulhenbeck, L. Luciano Bonaparte, Buchardt eta bertze, mintzaietaren zeretan gehiago dakitenak, denak eskualtzale suharrak, miatzaile burukoiak[3].

Detxepareren liburu hori irakhurtu nuenian, badakizea zerk harritu ninduan oroz gainetik? Ikhustea, ohartzea, miresturik, Garazin orai mintzatzen den eskuara Detxeparen denborakoa dela salbu hitz bakhar batzu.

Lau ehun urthe iraganik, eskuara ez da aldatu, baztertu edo bihurtu bere bidetik eskualdunen arthean Garazi aldean. Hea ez denetz gauza harrigarria!

Oraiko Espainiako edo Frantziako yende xehek irakhurri nahi balukete lau ehun urthe aitzineko beren mintzaira, erdizka bezik ez lezakete ulhertu. Hain dira aldatuak gerozkioz.

Manex Zabori.

(III) ADITZ IKASKUNTZA

31. Ditakeneko — 32 Ohoratzen gitu
33 Nahi balukete — 34 Ez lezakete

31. IZAN - Potentiel Présent

Ni izan naiteke
Hi —"— haiteke
Zu —"— zaitezke
Hura —"— daiteke
Gu —"— gaitezke
Zuek —"— zaitezkete
Hek —"— daitezke

32 UKAN Conj. Trans. à cplt direct : pronom personnel

Gu = nous. Indicatif Présent

Zuk gaituzu = vous nous avez
Harek gaitu = il nous a
Zuek gaituzue = vous nous avez
Heiek gaituzte = ils nous ont

Imparfait

Zuk ginduzun = vous nous aviez
Harek ginduen = il nous avait
Zuek ginduzuen = vous nous aviez
Heiek ginduzten = ils nous avaient

33. UKAN - Conditionnel présent.

Objet singulier	Objet pluriel
Nik nuke (je l'aurais)	nituzke = je les aurais
Hik huke	hituzke = tu les aurais
Zuk zinuke	zinituzke = les au
Harek luke	lituzke = il les aurait
Guk ginuke	ginituzke = nous les aurions
Zuek zinukete	zinituzkete = vous les auriez
Heiek lukete etc.	lituzkete = ils les auraient